

EGI EGIA

(Aurtengo indar-neurtzeetan Saria irabazia)

Zartzaroari bultzaz
egon nai det gazte;
bañan... urte zitalak
azkarki zoazte,
¿zertzaz datorkit poza
malko ta par naste,
beti gelditzen bazat
zerbait buruauste?

Basapaingarri ziran
ostoen antzera
nere pozgayak doaz
jaulkita lurrera;
burua nagi daukat
biotza minbera
t'etsipenen arantzik
ezin det atera.

Arantz sarkorrek dira
ezten zorrotzan lez
t'oyek atera gabe
pozak indarririk ez;
berri dauden artean
grinak ezi gabez
ni bezela or dabiltz
zartuta negarrez.

Joan zan garayaren
geroko oroimenak
gogora dakartzkigu
damuki geyenak,
gaztaroko egunak
galtzen doazenak
ziran, gure bizian
ditugun onenak.

Egun ayek betiko
guretzat zirala
gaztetasunak zion,
naiz gezurti zala;
gezurra sinisten da,
baña adu zitala
zai dago zabaltzeko
zar lañon itzala.

Gazte egun zoritsuak
agurtu betiko
t'ez det udaberririk
berriz ikusiko;
nekatu dan biotzak
miñago aldiko
dar darka esaten dit
¡laister zera illko!

Alperrik sakontzen det
nere jakin naya
— laister — orrek ez dakit
noraño dun gaya;
dakit bidean dala
guzion garaya,
dakit zorrotza dala
eriotz-itaya.

Lur zulo batez beste
guzia utzi bearrak
¿zein ez du naigabetzen
menpetuz indarrak?
Ez arrotu geyegi
eche jaun goitarrak
zuen zai ere daude
lur azpiko arrak.

Nagusi zein dan eta
zein diran morroyak
ez ditu banakatzen
ill-itai zentoyak,
berdin ezkutatzeko
azken-gaitz erdoyak
guziontzat estalki
dauzka bai ill-oyak.

Noizbait zalantz garratzen
menpe egon bazera
zer zeran jakiteko
begira lurrera,
ill berrian bi malko
illaren gañera,
t'oroipena galtzen da
malkokin batera.

Ara gure izakiak
zer bukaera digun
naiz zoriontasunez
len bizi izan bigun.
Ill ezkerro begiak
betiko dira illun,
t'ill gabe gelditzeko
eziñ ezer iñun.

¿Nigan zertan zatozte
zabaldutz egoak
sinisge nai nazuten
gogapen gaiztoak?
naiz ustelkorrak izan
gorputz ildakoak
anim onentzat dauka
zerua Jainkoak.

JUAN MUJIKI LASKIBAR

